

Lasarten, 2006ko otsailaren 21an

**EUSKARAREN ERABILERA**  
**ETA TRANSMISIOA**

**Olabide Ikastolako ikasle ohien adibidea**

Agur t'erdi:

Ingurune nagusiki erdaldunean bizi eta seme-alaba txikiak dituzten euskaldunen artean euskararen erabilera eta familia-transmisioa aztertzeko, gure ikasle-ohiak oinarri hartuta, azterlan bat argitaratu zuen, iaz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta.

Azterlan horretan abiatzeko, Olabide Ikastolak daukan datu-basea oinarri hartzea oso interesgarria iruditu zitzaigun, gure ikasle izandako guztiakin harremanetan jartzeko aukera eskaintzeaz gain, euskararen erabileran eta transmisioan, ikastolak eta gure ikasle-ohien familiek eginiko ahaleginaren fruituak zehatz-mehatz ezagutu ahal izango genituen eta.

Hori guztia hobeto ulertzeko, Jon Aizpurua jauna, Kultura Sailaren Plangintza eta Azterlanetako zerbitzuaren arduraduna gonbidatu dugu hitzaldi bat ematera. Berak azalduko dizkigu azterlan honen nondik norakoak eta beste ingurune batzuetan egindako azterketekiko dauden aldeak. Hitzaldia datorren ostegunean, hilak 23, izango da arratsaldeko 19:00etan ikastolako Areto Nagusian.

Hitzaldia euskaraz emango da nagusiki, baina bertan esandakoa guztiok ulertu ahal izan dezagun, aldian-aldian gaztelaniaz egingo dira laburpenak.

Gurasoak, ikasle-ohiak, lankideak, ikasleak, guztiak zaudete gonbidatuta eta bertaratzen zaretenok, gainera, azterlan hori jasotzen duen liburua zuzenean jasotzeko parada izango duzue.

Besterik gabe, ostegunera arte  
Izan ongi

**TRANSMISIÓN Y USO DEL EUSKARA**  
**El ejemplo de los antiguos alumnos de**  
**Olabide Ikastola**

Agur t'erdi:

Promocionado por la Vicesconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura, El Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, ha publicado un estudio, tomando como base para ello el colectivo de nuestros antiguos alumnos, con el objetivo de analizar el uso y la transmisión familiar del euskara por parte de los euskaldunes con hijos/as pequeños/as, en un entorno mayoritariamente castellano parlante.

Nos pareció muy interesante que para la realización de este estudio, se tomara como punto de partida la base de datos que tiene Olabide Ikastola, ya que además de darnos la oportunidad de ponernos en contacto con cada ex-alumno censado, tendríamos la oportunidad de conocer con mayor precisión los frutos del trabajo realizado por la ikastola y por las familias de nuestros ex-alumnos, en lo que se refiere al uso y transmisión del euskara.

Para comprender todo ello mejor, hemos invitado al Sr. Jon Aizpurua, Responsable del servicio de Planificación y Estudios del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco a que dé una conferencia sobre el tema. Él nos explicará los entresijos de este y otros estudios comparativos realizados en el entorno. La conferencia será el próximo jueves, 23 de febrero a las 19:00horas en el Salón de Actos de la ikastola.

Si bien la conferencia será fundamentalmente en euskara, se harán resúmenes en castellano con el fin de que todos/as podamos seguir la conferencia.

Padres/madres, antiguos alumnos, personal de la ikastola y alumnado, todos estáis invitados, y los que asistáis a la conferencia, tendréis oportunidad de recoger allí mismo la publicación que recoge este estudio.

Sin más por el momento, hasta el jueves.  
Izan ongi